

Informazio orri honen bidez zuen interesekoak izan daitezkeen hainbat berri eman nahi dizkizuegu. Gogoratu nahi dizuegu, halaber, gai hauei edo beste edozeini buruzko informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, Federazioarekin harremanetan jar zaitezketela, horretarako eskaintzen ditugun bide hauetako edozein erabilia: aurrez aurreko arreta, Federazioaren bulegoan, 9:30etik 17:30era, astelehenetik ostiralera; telefono bidezko arreta (tel. zk.: 943 32 72 08 / fax zk.: 943 27 49 77); edo posta elektronikoa, [baikara@baikara.org](mailto:baikara@baikara.org) helbidera idatzita.

## **1.- OOG-ESKOLA KONTSEILUETARAKO HAUTESKUNDEAK**

Ikastetxeetako Ordezkaritza Organo Gorenek (Eskola Kontseiluek) bi urtez behin berritu behar dituzte beren kideen erdiak. 2008-09 ikasturte hasiera da berrikuntza egiteko garaia, eta, beraz, hauteskunde prozesua laster abian izango dela aurreikus daiteke. Hezkuntza Sailak ez du hauteskunde horiek arautzen dituen agindurik argitara eman, oraindik, baina **azaroaren 17tik 21erako asteen** izango dira hauteskundeak, eta OOG-Eskola Kontseilu berriek 2008ko abenduaren 19rako eratuta egon beharko dute.

Hauteskunde prozesuaren egutegi zehatzaren berri jasotzen dugunean (Hauteskunde Batzordearen eraketa, hautagaien onespena...), IGEei jakinaraziko diegu. Edonola ere, hauteskunde horiei begirako zenbait gomendio egin nahi dizkizuegu dagoeneko:

- Garrantzitsua da hauteskunde prozesuaren hasieran IGEaren Zuzendaritza Batzordeak Ikastetxeko zuzendariarekin bilera egitea, prozesuari buruzko xehetasun guztien berri jasotzeko.
- IGEak hautagaien zerrenda bat osatzea komeni da; familien defentsan jarduteko eta ordezkaritza sendoa osatzeko konpromisoa duten gurasoek eta Guraso Elkarteak hartutako erabakiak eta onartutako proposamenak Eskola Kontseilura eramateko kiderik aproposenek osatutako zerrenda bat prestatzea.

**Alderdi horretatik, gogoratu behar dugu IGEak zuzenean izenda dezakeela ordezkarri bat, hauteskunde prozesutik at, Eskola Kontseiluko berezko kide gisa.** IGEak proposatu nahi dituen gainerako hautagaiak, aldiz, gurasoen botoen babesa beharko dute.

Era berean, gogorazi nahi dizuegu edozein guraso izan daitekeela hautagai, baita IGEak proposatu ez badu ere. **Hori dela-eta, benetan garrantzizkoa da IGEak proposatutako kideak nor diren argi eta garbi adieraztea.**

Funtsezkoa da familiak beren botoaren garrantziaz jabetzea. Horretan sakontzeko ekitaldiren bat (hitzaldia, batzarra...) egitea komeni da, beraz.

- Era berean, hauteskundeei buruzko banakako informazioa eman behar zaie familiei, gutun baten bidez: IGEaren hautagai zerrendako kideei buruzko datuak, datak, botoa emateko baldintzak...
- Bereziki nabarmendu beharra dago posta bidez botoa eman daitekeela, seme-alaben bidez, eta argi azaldu behar dugu boto hori bertan emandakoa bezain baliagarria dela.
- IGE bakoitzak osatutako zerrendan behar baino guraso gehiago agertzea komeni da, gurasoak sobera geldi daitezten. Izan ere, ordezkaritzak lau urteko iraupena du, berez, eta bitarte horretan tokiren bat hutsik geldituz gero, zerrendan gelditutako gurasoekin beteko lirateke hutsuneak, eta, horrela, ez litzateke gurasoen ordezkaritzan murrizketarik gertatuko.

## **2.- HIZKUNTZA EREDUEN ERREFORMA**

Aurrez ere jakinarazi izan dugunez, Hezkuntza Sailaren legegaldi honetarako xedeetako bat da gaur egun indarrean dauden hizkuntza ereduak (A, B eta D) eraberritzea.

2007ko martxoaren 8an, Hezkuntza Sailburuak erreforma horren ildo nagusiak aurkeztu zituen Eusko Legebiltzarrean, "EAEko hizkuntzen ikaskuntza eta irakaskuntzan esparrua" izenburupean bilduta. Proposamen horren berri izan ondoren, gizarte eta hezkuntza eragileek eztabaida egin zuten eta beren proposamenak eta ekarpenak igorri zizkieten Hezkuntza Sailari. 2008ko abuztuaren, Hezkuntza Sailak erreforma hori legez arautzeko lege egitasmoaren zirriborroa aurkeztu du. Hasierako zirriborroa baino ez da; orain, eztabaidatu eta adostu egin beharko da, Eusko Jaurlaritzako hiruko alderi politikoaren artean, lehenik, eta gainerako alderdi eta hezkuntza eta gizarte eragileen artean, ondoren. Hori dela-eta, iruditzen zaigu hasierako zirriborro horretan hainbat aldaketa egingo direla Eusko Legebiltzarrean aurrean aurkeztu eta, ondoren, euskal hezkuntza sisteman ezartzeraino egin beharreko ibilbidean. Alderdi politiko batzuek

dagoeneko adierazi dute ez daudela zirriborroaren hainbat alderdirekin ados, eta erreformak, gainera, arazo larriak izango ditu onespenerako epeekin; izan ere, 2009ko udaberrian Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egin behar dira, eta, beraz, gaur egungo Legebiltzarren legealdia lau hilabete eskas barru amaituko da. Hortaz, lege berria onartzeko oso denbora gutxi dago eta, une honetan dauden gorabehera politikoak kontuan hartuta, gure ustez nekez onartuko dute lege berri hau datozen hilabeteetan.

Eta egoera horri buruz, zer jarrera du BAIKARAK? Oraingoan, EHIGE konfederazioan eztabaidatu da gaia, eta erabaki da, gaiaren garrantzia ikusirik, inolako ekarpenik ez aurkeztea, ziur jakin arte eztabaidagai dugun dokumentuak Eusko Jaurlaritzaren babesa duela, eta ez Hezkuntza Sailarena soilik.

Inork lege egitasmoa eskuratu nahi izanez gero, Federazioaren webgunean du horretarako aukera ([www.baikara.org](http://www.baikara.org)).

### **3.- Haur Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumak arautzeko dekretuak.**

Hezkuntza Lege berria (LOE) onartu eta Hezkuntza Ministerioak hezkuntza etapa bakoitzerako gutxieneko edukiak argitara eman ondoren, Eusko Jaurlaritzari zegokion, bere eskumen arabera, Autonomia Erkidegoan aplikatu beharreko curriculuma onartzea. Aurreko ikasturtearen hasieran, derrigorrezko hezkuntzari (Lehen Hezkuntza eta DBH) zegokion curriculuma onartu zen, eta Haur Hezkuntzako (0-6 urte) eta Batxilergoko onartu zain geunden. Dekretu horien zirriborroak plazatu dituzte, eta urrian zehar onartu eta EHAAn argitaratuko dituztela aurreikus liteke. Batxilergoko curriculumari dagokionez, gai bat dago bereziki kezkarri iruditzen zaiguna: Erljioa ikasgaiaren tratamendua. Hezkuntza Sailak iritzia eskatu zigunean, argi eta garbi esan genuen ez geundela Erljioa eskola ordutegiaren barruan ematearekin inola ere ados. Aplikatu den Batxilergoko curriculumaren zirriborroan, eskola ordutegiaren barruan agertzen da Erljioa ikasgaia, eta ez du inolako alternatibarik uzten; hau da, Erljioa aukeratzen ez duten ikasleak ikastetxetik kanpo egon daitezke ordu horietan. Hori ikusirik, institutu askotan eskola ordu bat erantsi diote ordutegiari, eta, hala, Erljioa hautatzen duten ikasleek 33 eskola ordu izango dituzte, eta gainerakoek, 32 ordu. Hasieran, behin betiko erabakia izango zela zirudien; baina, egunkari batzuetan argitara eman dutenez, Eliza Katolikoa presioa egiten ari da Hezkuntza Sailak halakorik onar ez dezan eta ikastetxeak Erljioko eskolarentzat alternatiba bat ezartzera behar ditzan. Hezkuntza Sailak oraindik ez du jendaurrean adierazi bere erabakiaren berri eta, beraz, Batxilergoko curriculumaren behin betiko onespenera zain gaude, auzi hau zertan gelditzen den ikusteko. Inork dekretuen zirriborro horiek eskuratu nahi izanez gero, Federazioaren webgunean du horretarako aukera ([www.baikara.org](http://www.baikara.org)).

### **4.- OHAR LABURRAK**

#### **- IGEen estatutuak berritzea.**

Euskadiko Elkartearen Lege berria onartu izanaren, ondorioz, IGE guztiak beren sozietate estatutuak lege berrira egokitzeko moduan berritu behar dituztela gogorarazi nahi dizuegu. Orain artean, 95 IGE jarri dira Federazioarekin harremanetan; horietako 57ren estatutuak eraberrituta daude, dagoeneko, eta izapidetze prozesuan daude beste 38enak. Dena den, oraindik 43 IGE daude Federazioarekin harremanetan jarri ez direnak; hori dela-eta, arren eskatzen diegu lehenbailehen jar daitezela gurekin harremanetan, 2008. urtearen amaierarako IGE guzti-guztien estatutuak berritzeko izapideak, gutxienez, abian izan daitezten baita helburua.

#### **- BAIKARAREN Batzar Orokorra**

Baikararen Batzar Orokorra azaroaren 8an izango da, Beasaingo Loinazpe Institutuan. Urrian zehar jasoko duzue batzarrari buruzko informazio gehiago.

#### **- BAIKARAREN 2008-09 ikasturterako formazio eskaintza**

Irailaren amaieran, BAIKARAK guraso nahi ikasleei begira antolatutako formazio eskaintza bidali zitzaien Ikastetxeetako Zuzendaritzari eta IGEei.

Edozein arrazoi dela medio informazio hori jaso ez baduzue, jar zaitezte Federazioarekin harremanetan. BAIKARAREN webgunearen bidez ere eskura dezakezue informazioa ([www.baikara.org](http://www.baikara.org))

#### **- Euskal Eskola Publikoaren jai**

2009ko Euskal Eskola Publikoaren Jai ekainaren 7an izango da, Bergaran. Datozen asteetan jasoko duzue jai horri begira aterako den materialari buruzko informazioa (elastikoak, eskolarako materiala...).

Baso – Txiki, 36 – atzealdea. 20015 Donostia

E-Mail: [baikara@baikara.org](mailto:baikara@baikara.org)

Tel. zk.: 943 327208 Fax: 943 274 977

Web orria: [www.baikara.org](http://www.baikara.org)